

# **Erregistro bibliografikoetan objektuak eransteko prozedura**

**2026ko otsaila**

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

– tel. 945 01 94 74 –

e-mail: [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)



**Liburutegiak**

## **ERREGISTRO BIBLIOGRAFIKOETARA OBJEKTUAK ERANSTeko PROZEDURA. AZALAK**

Prozedura honen xedea da jarraibide batzuk eman ahal izatea Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sortzen diren erregistro bibliografikoetara objektuak eransteke momentuan. Madrilgo Erkidegoko liburutegi sarean landutako protokolo batean oinarrituta dago.



Irudiak erregistro bibliografikoari erantsiko zaizkio beti, eta dokumentuaren azala jasoko dute bakarrik. Liburuaren azala ur-markarik, barra-koderik edo berari ez dagokion elementurik gabe agertu beharko da.


Azaleko irudia multimedia modulura era ezberdinetan txertatu daiteke:

- A. menuko aukeretatik.
- B. era laburtuan, irudiaren gainean sakatuta.
- C. eLiburutegiatik.

## a) Irudia erantsi menuko aukeretatik

### A. Irudia erantsi menuko aukeretatik

1. Erregistroa aurkitu.
2.  *Multimedia objektuak eguneratu* klikatu.
3. Multimedia modulua irekiko da eta goiko barrako  *Taldea gehitu* ikonoa klikatuko da.




Deskripzioa

Publikoa  Pribatua

Onartu Ezeztatu


4. *Pribatua* aukera hartu eta deskribapena gehitu (G1).




Deskripzioa G1

Publikoa  Pribatua

Onartu Ezeztatu

5. Behin taldea sortuta, objektua erantsiko dugu goiko barrako  *Objektua erantsi* aukeraren bidez.
6. *Portada* modura deskribatzen da (hasierako letra larriz) miniatura gisa agertzea nahi badugu (objektuak ez badarama deskribapen hori ez da miniatura OPACean bistaratuko).
7. Fitxategiaren kokapena Fitxategia eremuan adieraziko da bere ondoan dagoen *Aukeratu Fitxategia* botoia sakatuta. *Publikoa* aukera hautatuko dugu.




The screenshot shows a web form for adding a file to a collection. The form includes the following fields and options:

- Deskripzioa:** A text input field containing the word "Portada".
- ID:** An empty text input field.
- Fitxategi-Id:** A checkbox that is currently unchecked.
- Fitxategia/URL:** Radio buttons for selecting the type of content. "Fitxategia" is selected.
- Objektua:** A text input field containing "Aukeratu Fitxategia" and "13.jpg".
- Gorde:** A dropdown menu showing the path "/apli/BIBLIOTECAS/SNBE\_AB24/Multimedia - Multimedia".
- Erabilia/Erabilgarria:** Two checkboxes, both of which are checked.
- Publikoa/Pribatua:** Radio buttons for visibility. "Publikoa" is selected.
- Buttons:** "Onartu" (Save) and "Ezetzatu" (Cancel) buttons.

Posible da ere irudia eskanerretik zuzenean eranstea TWAIN aukera hartuta (aukera hori erabili ahal izateko ezinbestekoa da ekipoak Java instalatuta izatea)

8. *Onartu* sakatu aurretik testua *Deskribapena* eremuan gehitu behar da. Bestela, ondorengo abisu-laukia agertuko zaigu:



9. *Onartu* klikatu eta ondoren *Baliozkotu*, modulutik irten aurretik.


**Gogoratu multimedia modulua aktibatuta duzuenok soilik erantsi ahal izango dituzuela irudiak atal honetan jasotzen den bezala.**

## b) Irudia eransteko prozedura laburtua

1. Erregistroa aurkitu.
2. Miniaturaren irudiaren gainean kokatuta eskuineko botoia sakatu:



3. "Fitxategia hautatu" aukeraren gainean klikatu:



4. Erregistroari erantsi nahi diogun irudiaren azala aukeratu:

Sistemak irudien taldea sortzen du *Portada* gisa deskribatutako irudiarekin:



## Irudiaren ezaugarriak

Irudiaren neurriak honakoak izango dira: 400x700 pixel. irudiaren zabalera 200 pixeletakoa edo handiagoa izan behar da.

Zabaleraren eta altueraren artean proportzio berbera mantentzeko ahalegina egingo da, eta balio hori 0.57ren berdina edota handiagoa izango da. Adibidez:

- Neurria: 400x700 pixel  
Proportzioa:  $400/700 = 0.57$
- Neurria: 200x350 pixel  
Proportzioa:  $200/350 = 0.57$


Edozein arrazoi dela medio irudia ez bada erantsi nahi zenutena edota ezabatu nahi izanez gero liburutegi zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko zarete, behin soilik erantsi dezakezuelako.

*URL-a sartu* aukerak edo Open Library-ko azalak sakatzearen aukerak kanpoko zerbitzu batek eskainitako irudi baterako esteka sortzen du multimedia moduluan. Lehenetsita konfiguratuta dauden web-orri ezberdinetako azalak hautatzeko balio du. Ez da erabiliko izaera komertziala duen kanpoko baliabiderik.

## c) Irudia erantsi eLiburutegiatik

Azalik ez duen erregistro batekin topo egiten badugu, baina liburu hori eLiburutegian baldin badago, honakoa egin beharko dugu:

1. eLiburutegian interesatzen zaigun azala aukeratu behar dugu eta saguaren eskuineko botoiarekin “Kopiatu irudiaren esteka” aukeratu:



2. Gero, Absysneten, hutsik dagoen irudiaren gainean klikatuko dugu eta saguaren eskuineko botoiarekin “URL sartu” aukeratuko dugu.



OpenLibrary

Fitxategi bat aukeratu

URL sartu

3. Azkenik, eLiburutegiatik kopiatu dugun irudiaren ibilbidea itsatsiko dugu eta onartu klikatuko dugu.



OpenLibrary

Fitxategi bat aukeratu

URL sartu

<https://www.euskadi.eus/ac37aELiburutegiaPublicaWar/fiche> Onartu



Landa, Mariasun (1949-)

**Nire eskua zurean** / Mariasun Landa ; marrazkiak Antton Olariaga -- Donostia : Erein, L.G. 1995  
61 or. : ir. ; 19 cm -- (Auskalo igela ; 42)

12 urtetik aurrera  
Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

D.L. SS 524-1995  
ISBN 84-7568-545-5

[Conflictos familiares-Novelas -Libros infantiles v juveniles \(+\)](#)  
[Familia-gatazka-Eleberriak-Haur eta gazteentzako liburuak \(+\)](#)  
[Convivencia-Novelas-Libros infantiles v juveniles \(+\)](#)  
[Elkarbizitza-Eleberriak-Haur eta gazteentzako liburuak \(+\)](#)  
[Olariaga, Antton \(1946-\)](#)

[Auskalo saila](#)  
087.5:821.361-31"19"

Edozein arrazoi dela medio irudia ez bada erantsi nahi zenutena edota ezabatu nahi izanez gero liburutegi zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko zarete, behin soilik erantsi dezakezuelako.

**OHARRA:** Azal oker batekin topo egiten badugu eta aldatzeko aukera izanik jarraitu eskuliburu honetako **a) Irudia erantsi menuko aukeretatik** atalean agertzen diren pausoak.